

Eskolagune

Izaki txikiak, protagonista handiak

ARLO/IKASGAIA:

- Natura, gizarte eta kultura ingurumenaren ezagutza

ETAPA:

- Lehen Hezkuntza (3. Zikloa)

Esperientzia honekin Txingudiko paduretako izaki txikiak ezagutuko ditugu. Begi hutsez ikustea zaila izan arren, oso garrantzitsuak dira ingurune natural baten bizitzarako; izan ere, makroornogabeen presentzia, besteak beste, espazioaren kalitate ekologikoaren osasunaren adierazle bikainak dira. Zer gertatuko litzateke horrelako izakirik ez balego? Zatoz haien garrantzia ezagutzera!

